

INDUSTRIA-PRODUKZIOAREN INDIZEA. 2025EKO MAIATZA


Euskal Autonomia Erkidegoko industria-jarduera % 1,9 hazi zen 2025eko maiatzean

Aurreko hilaren —2025eko apirila— aldean, industria-produkzioa % 0,1 handitu da

Eustaten datuen arabera, 2025eko maiatzean Euskal Autonomia Erkidegoko industria-produkzioa aurreko urteko hil berean izandakoa baino % 1,9 handiagoa izan zen, lan-egutegi homogeneoari dagokionez.

Aurreko hilabetearekin alderatuz gero, Euskal Autonomia Erkidegoko industria-jarduera % 0,1 handitu da azken hilabetean, urtaroen eragina zuzendu ondoren.

Euskal AEko Industria-produkzioaren indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa (%)



Ondasunen helburu ekonomikoaren arabera, *Kontsumo-ondasunetan* produkzioak urte arteko portaera negatiboa izan du 2025eko maiatzean, eta produkzioa % 0,1 murriztu da sektore osoa kontuan hartuta. Jaitsiera hori batez ere *Kontsumo iraunkorreko ondasunen* portaerak eragin du, horien produkzioa % 3,2 jaitsi baita; izan ere, *Kontsumo ez-iraunkorreko ondasunen* produkzioa % 0,7 hazi da. *Kontsumo iraunkorreko ondasunen* artean, besteak beste, altzarien eta etxeko tresnen fabrikazioa sartzen da. *Kontsumo ez-iraunkorreko ondasunen* artean, bestalde, elikagaiak prozesatzeko eta kontserbatzeko jarduerak, garbiketa- eta higiene-produktuen fabrikazioa, farmazia-produktuak eta janzteko arropen produkzioa agertzen dira.

Ekipamenduko ondasunen produkzioa (ibilgailu motordunen fabrikazioa, tren-makinen eta trenbide-materialen eraikuntza eta aeronautikaren edo itsasontzien eraikuntza barne hartzen dira) % 13,7 igo da aurreko urteko maiatzaren aldean.

Bitarteko ondasunetan (metalurgia eta metalezko produktuen fabrikazioa, industria kimikoa eta kautxuzko eta plastikozko produktuen fabrikazioa barne hartzen dira) produkzioa % 1,9 jaitsi da urte artean.

Azkenik, *Energiaren* produkzioa % 24,6 jaitsi da 2025eko maiatzean, aurreko urteko hil beraren aldean. Sektore honetan sartzen dira energia elektrikoaren produkzioa eta hornidura eta petrolioaren fintzea.

Euskal AEko Industria produkzioaren indizea lurralde historikoaren eta ondasunen helburu ekonomikoaren arabera. Aldakuntza-tasak (p). Maiatza 2025

	Egutegi eraginak zuzendutako datuak		Datu desestazionalizatuak	
	m / m-12	Am / A(m-12)	m / m-1	
Indize orokorra				
Euskal AE	1,9	1,8		0,1
Araba/Álava	-1,0	-2,8		0,2
Bizkaia	4,1	5,6		-0,4
Gipuzkoa	1,3	0,5		0,6
ONDASUNEN HELBURU EKONOMIKOAREN ARABERAKO INDIZEAK				
Kontsumo-ondasunak	-0,1	1,6		-1,2
Kontsumo-ondasun iraunkorrak	-3,2	-4,4		1,7
Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	0,7	3,1		-1,9
Ekipo-ondasunak	13,7	9,3		4,9
Bitarteko ondasunak	-1,9	-2,6		-1,1
Energia	-24,6	-8,1		-13,6

(p)Behinbehineko datuak

m/m12 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

Am / A(m-12) Urte arteko aldakuntza-tasa, urtariletik behatutako azken hileraren arteko metatutako aldiaren (Am), aurreko urtean pila-tutako aldi beraren (A(m-12)) aldean

m / m-1 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko hilaren (m-1) aldean

Data 2025eko Uztailaren 3a

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

2025eko maiatzean Industria-produkzioaren indizearen urte arteko bilakaera positiboa izan da Bizkaian (% 4,1 hazi da) eta Gipuzkoan (% 1,3 hazi da) urte arteko terminoetan. Araban, aldiz, urte batetik bestera % 1,0 murriztu da produkzioa.

Maila bereiziagoan, Euskal AEko industrian pisu handiena duten sektoreen artean, 2025eko maiatzean, urte artean, produkzioaren hazkuntza handiena hauek izan dute: *Makineria eta ekipamendua* (% 30,4) eta *Materiala eta ekipo elektrikoa* (% 5,2). Aldiz, produkzioaren urte arteko jaitsiera nabarmenenak *Zura, papera eta arte grafikoak* (% 5,7) eta *Energia elektrikoa, gasa eta lurruna* (% 5,3) sektoreetan izan dira.

Euskal AEko Industria produkzioaren indizea. Sektore A38 nagusiak (1). Urte arteko hazkunde-tasa (p). Maiatza 2025

	m / m-12
Elikadura ind., edariak, tabakoa	-2.0
Zurgintza, papera eta arte grafikoak	-5.7
Kautxua eta plastikoak	0.6
Metalurgia eta produktu metalikoak	1.4
Materiala eta tresna elektrikoak	5.2
Makineria eta tresneria	30.4
Garraio-materiala	1.6
Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	-5.3

(p)Behinbehineko datuak

Egutegi eraginak zuzendutako datuak

(1)Euskal Aeko industrian pisurik handiena duten sektoreak

Data 2025eko Uztailaren 3a

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

2025eko MAIATZEKO BALANTZE METATUA

Urteko lehen bost hilabeteetako balantze metatuan, Industria-produkzioaren indizea % 1,8 igo da. Maiatzera arte metatutako produkzioa % 1,6 igo da *Kontsumo-ondasunetan* eta % 9,3 *Ekipo-ondasunetan*, aurreko urteko aldi metatu berarekin alderatuta *Bitarteko ondasunak*, berriz, % 2,6 jaitسي dira, eta *Energia* % 8,1.

Lurralde historikoen arabera, 2025eko lehenengo bost hilabeteetako balantze metatua balantze positiboarekin itxi da Bizkaian eta Gipuzkoan, produkzioa % 5,6 eta % 0,5 igo baita, hurrenez hurren. Araban, aldiz, produkzioa % 2,8 jaitسي da, aurreko urteko aldi metatu beraren aldean.

INFORMAZIO-OHARRA

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie informazioa biltzen lagundu duten establezimendu guztiei. Haiei esker, hilabete honetako indizea lagingaren % **84,93**ko estaldurarekin kalkulatu da.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel: 945 01 75 62